

ESCRITO REALIZADO POR LOS PRESOS POLITICOS VASCOS (IOSU URBIETA, XABI GOIENETXEA, JOSEBA FERNANDEZ, IZASKUN LESAKA, MIKEL KARRERA, ARKAITZ AGIRREGABIRIA) LEIDO EL DIA 2 DE NOVIEMBRE DURANTE SU JUICIO EN PARIS.

## **EGOERA POLITIKOAREN IRAKURKETA**

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka ez zen ETArekin hasi, eta ez da amaituko Euskal Herriak bere askatasuna berreskuratzen ez duen arte.

2010eko martxoaren 16ko gertakarien testuinguru politikoa gogoratzea eta azaltzea ezinbestekoa da ETak orduko hartan burutu asmo zuen ekintzaren arrazoiak eta nondik norakoak ulertu nahi badira. Begira diezaiogun kronologikoki 2009ko amaiera eta 2011 hasiera bitarteko tarte horri:

2009ko hondarretan Ezker abertzale osoaren baitako hausnarketa eta eztabaida politikoak eta ondoriozko adierazpenak hurrengo urteetan hartuko zen norabidea markatzen ari ziren. Altsasuko adierazpenari erantzunez, ETak 2009ko abenduaren 31n sinatutako agirian beste hainbat gauzen artean, hitzez hitz, zera zioen: "Ezker Abertzalea mintzatu da eta ETak bere egiten ditu haren hitzak".

Altsasuko adierazpena Ezker abertzalearen estrategian egin beharreko sakoneko aldaketez mintzo zen. Norabide horretan, eta jarraian, ETak ekintza armatuen behin-behineko etena erabaki zuen, hainbat hilabete geroragora arte publiko egin ez zen arren.

ETak bere erabakiaren berri Gobernu frantsesari eta espainiarrari jakinaraztea erabaki zuen ere.

Ekintza armatuen eteteak ekin moldea aldatzera behartzen zuen ETA. Eta moldaketa hori indar armatu espainiar eta frantsesen jazarpena bete-betean ari zen une batean burutu behar zuen. Ekin moldeen aldaketa hori aurrera eramateko beharrezko hausnarketa eta prestaketak burutzeko ekimenen baitan kokatu behar da martxoaren 16ko ibilgailu horniketa-ekintza.

Martxoaren 3an nazioarteko hainbat pertsonalitatek *Bruselako adierazpena* bezala ezagutua izan dena plazaratu zuten.

Martxoaren 10eko agirian, abenduaren 31koaren ildotik, ale berri bat gehitu zuen ETA erakundeak: "ETA-k, bere aldetik, dagokion eremuan aldaketa politikoaren bidean beharrezkoak diren urratsak emateko prestasuna adierazten du".

Martxoaren 11n, Jon Anzaren gorpua Okzitaniako Tolosako Purpan ospitaleko gorputegian zegoela jakin zen. Nonbait Frantziako Estatuak Jon Anzaren gorpuaren bahiketari amaiera ematea erabaki ondoren.

Martxoaren 16. Huts egindako auto-horniketa ekintza. Tamalez, polizia frantsesaren parte hartze armatuaren ondorioz, operazioa ez zen behar bezala atera, izandako tiroketaren ondoren kide bat atxilotu eta polizia frantses bat hilik gertatu baitzen. ETako kiderik hilik ez gertatu izana halabehararren ondorio izan zen, polizia frantsesek tiro ugari eta denak ematera egin baitzituzten.

Uztailaren 24an, Jon Anza zenari egin zitzaion omenaldian, aurpegia estalita zeramaten hiru pertsonak ETArekin agiri bat irakurri zuten. Agiri horrek bizi dugun gatazka politikoa era justu eta demokratikoan gainditzeko borondatea erakusten zuen.

Irailaren 5ean ETAk urte hasieran erabakitako ekintza armatuen etenaldia publiko egin zuen.

2010eko irailaren 25ean Gernikako Akordioa sinatu zuten. Akordio honen sinatzaileek borroka politikoa soilik lanabes politiko eta demokratikoen bidez egiteko konpromisoa hartu zuten.

2011ko urtarrilaren 8an ETAk Bruselan eta Gernikan hurrenez hurren nazioarteko eta Euskal Herriko eragileek egindako adierazpenei erantzunez su-etena iraunkor eta egiaztagarriaren abiatzea jakinarazi zuen.

2011ko otsailean nazioarteko aditu talde batek su-etena egiaztatzeko batzordea osatu zuen.

Ondorengo gertakari politikoentzat giltzarri izandako hileotan egindakoek argiki erakusten dute zertan zebilen ETA garai horretan. Hortik aurrerako hainbat gertakari hori berretsi besterik ez dute egin:

2011ko irailaren 25ean EPPK-k Gernikako akordioa sinatu zuen.

2011ko urriaren 17an Aieteko Konferentzia.

2011ko urriaren 20an, Aieteko konferentziari erantzunez, borroka armatua behin betiko gelditzeko bere erabakia publiko egin zuen ETAk.

Borroka armatua behin betiko gelditu ondoren, borroka armatuari begirako egiturak desegin eta bere burua desarmatzeko prozesua hasi zuen Erakundeak.

ETAk hori egiten zuen bitartean Estatu frantsesak:

- 2010 hasieratik hona 67 euskal herritar atxilotu ditu, 31 polizia operaziotan, horien artean hainbat ETako militante.

- ETAk borroka armatua betirako amaitutzat eman ondoren 41 izan dira atxilotuak 21 polizia operaziotan.

- Jada dispertsatua eta urrundua zegoen EPPK are eta gehiago dispertsatu du. Orduan talde ertainetan banatutako kolektiboa gaur egun 2 edo 3 kideko taldetan banatua dago.

- Kartzela barruko mota guztietako erasoek ez dute etenik izan.

- Kartzela aldia bukatzeko orduan, euskal militanteek inoiz baino traba gehiago topatzen dute, prokuradore eta zigor aplikazio epaileek inoizko diskurtsorik atzerakoiena mantentzen dutelarik.

Aurreko guztiaren frogak Biarritz, Orzaize eta Baigorriko sarekadak. Azken honetan lau euskal herritar atxilotuak izan ziren ETArekin lotura zutelakoan. Beste askotan bezala Espainiako barne ministerioak eman zuen, frantses Estatuarentzat bere lurretan gertatu zen operazio polizialaren berri. Sarekada Guardia Zibilak egin zuela ere adierazi zuten, polizia frantsesaren

laguntzarekin. Operazioa "Pardines" izenez bataiatu zuten. Esaldi gutxitan gauza asko esan zuten. Beren hitzek guri zera iradokitzen digute:

- Guardia zibila da bi estatuetan Euskal Herriaren kontrako borroka zuzentzen duena.

- Hainbatek ETaren jarduna bi arotan zatitu nahi izan du. Horien arabera Francoren garaian ETak bazuen zentzua, diktadura baten kontra aritzen zen heinean, behin ustezko demokrazia ezarrita ez ordea. Tesi hori hau bezalako epai-geletan ere entzun izan da Frantziaren izenean gure aurkako akusazioez arduratzen diren prokuradoreen ahotan. Guardia zibilarentzat ETA bakarra dago eta ETA beti izan da gaiztoa. Berdin dio ETak borroka armatua burutzen duen edo ez, berdin dio izeneko diktadura bati aurre egiten dion edo izaneko bati. Debekatua dagoena erresistentzia da, borroka, Euskal Herria. Bestalde, Guardia Zibila bera eta berdina da bere ibilbide osoan, izan diktaduran, izan "demokrazian", berdina torturatzen, berdina terrorea zabaltzen, berdina Euskal Herria okupatzen.

- Pardines izenarekin ziklo baten itxieraren kutsua eman nahi izan diote atxilotetari. Une honetan nabarmendu nahi duguna da ETaren ibilbide armatuan bere militanteen jardunak eragindako lehen eta azken hildakoak, bilatu gabeko enfrontamenduetan gertatu zirela. Baina ETaren ibilbidea ez zen Benta Handin hasi, Villiers-en-Bière-n edo Baigorri bukatu ez zen bezala. ETaren ibilbidea Euskal Herriak askatasuna berreskuratzen duenean amaituko da.

ETak duela lau urte utzi zuen borroka armatua. Eta, gaur egun, prozesuak jasan dituen mota guztietako oztopo, probokazio, inboluzio eta hitz-jateen ondoren ere, ETaren ildoak ez da amañ bat ere aldatu. Are, Euskal Herrira bakea eta askatasuna ekarriko duen prozesu politiko bat nola sustatu, elikatu eta bultzatu izan da gure Erakundearen kezka nagusia.

Alderdi politikoek, hasierako poz eta deklarazioen ondoren, ez dute urratsik egin gatazkaren erroetara jo eta elkarrizketa bidezko konponbidean aurrera egiteko. Estatuak hasierako beren jarrera itxiari, egungo egoera berrian nazioarteko estandarrei begiratuta ulertezina den oldarkortasuna gehitu diote. Gatazkaren ondorioak arintzeko urratsak egin ez eta legearen babesean lagungarri izan zitezkeenak ere oztopatzeko amarru bila dabiltza, horretarako beren legedia bihurritu behar badute ere.

Villiers-en-Bière-ko gertakari lazarrien garaian, ETA bakebidea urratzeko urratsak egiten ari zen. Gaur egun ere horretan ari da.

Estatu espainiarrak eta frantsesak ordea, gatazka iraun arazteko urratsak egiteari ez diote utzi. Beren tresneria guztia darabilte horretarako. Gaurtik aurrera epaitegi hau ere. Aurrera begiratzeak ez du esan nahi iragana ahaztu behar denik. Guztiz alderantziz, iragana errepika ez dadin erabakiak hartzeko atzera begiratu behar da, eta ikasi. Euskal Herrira bakea eta askatasuna ekarriko duen prozesua ez da hau bezalako salbuespenezko tribunaletatik pasatzen. Baina tribunal hauek ere badute ardurarik bakebidea errazteko orduan edo gatazkaren kimuak ureztatu eta hazi txar berriak ereiteko orduan.